Diputatu nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Foru Dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren Sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluak, uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri zituen eta, maiatzaren 20ko 40/2008 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorriz, Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen ordainsariak 2007ko ordainsariekiko % 2 igotzea, kontzeptu guztietan.

Bigarrena. Halaber, eta Estatuaren 2008rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 51/2007 Legearen 22.Hiru. artikuluan xedatuta dagoena aplikatuz, funtzionarioen soldata masa % 1 handituko da, ordainsari osagarriak (produktibitatea eta aparteko zerbitzuengatiko haborokinak bazter utzita) apurka-apurka doitzeko, horrela lansari guztietan osorik jasoko daitezen.

Hirugarrena. Goragoko paragrafoetan xedatutakoa bete egingo da; horrek ez du kentzen funts bat sortzea dagokion produktibitate osagarriaren bidez ordaintzeko errendimendu berezia, aparteko jarduna, helburuak betetzea eta funtzionarioak bere lana egitean jartzen duen interesa.

Laugarrena. Erabaki honen aurreko puntuetan xedatutakoak aplikatzeagatik lanpostu bakoitzari dagokion berariazko osagarriaren zenbatekoa aldatzen bada, lanpostu zerrendan adieraziko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 7a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Foru Administrazioaren Saileko diputatua, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIERREZ.– Funtzio Publikoko zuzendaria, LOURDES MARTÍNEZ DE LAGOS MANZANA.

A propuesta del Diputado Foral del Administración Foral, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral 186/2007, de 8 de agosto, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral, y con los Decretos Forales 154/1993 del Consejo de Diputados de 30 de julio, por el que se establecen las atribuciones en materia de Función Pública, y 40/2008 de 20 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento competente en materia de Función Pública, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy

ACUERDO

Primero. Incrementar las retribuciones del personal funcionario de la Administración General de la Diputación Foral de Alava en un 2 por ciento respecto a las del año 2007, en todos sus conceptos.

Segundo. Asimismo, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 22.Tres de la Ley 51/2007, de Presupuestos Generales del Estado para el 2008, la masa salarial de los/as funcionarios/as experimentará un incremento del 1 por ciento, con el objeto de lograr progresivamente, una acomodación de las retribuciones complementarias, excluidas la productividad y gratificaciones por servicios extraordinarios, que permita su percepción íntegra en la totalidad de las pagas.

Tercero. Lo establecido en los apartados anteriores se llevará a cabo sin perjuicio, por un lado, de la asignación del fondo destinado a retribuir el especial rendimiento, la actividad extraordinaria, el cumplimiento de objetivos y el interés o la iniciativa con la que el/la funcionario/a desempeña el trabajo, mediante el correspondiente complemento de productividad.

Cuarto. Las cuantías de los Complementos Específicos asignados a cada puesto de trabajo que, por aplicación de lo previsto en los apartados anteriores del presente Acuerdo, se vean modificadas, se fijarán en la Relación de Puestos de Trabajo.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2008.– El Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– El Diputado de Administración Foral, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– La Directora de Función Pública, LOURDES MARTÍNEZ DE LAGOS MANZANA.

## *Foru Aginduak*

### TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**7328**

**653/2008 FORU AGINDUA, urriaren 30koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Gaubeako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 9. aldaketa puntuala.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2007ko abenduaren 27an, Gaubeako Udalak arau subsidiarioen 9. aldaketa puntualari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: 2008ko urtarrilaren 18ko ALHAOn (8. zenbakia) eta 2008ko urtarrilaren 17ko El Correo egunkarian argitaratuz, eta udaletxeko iragarki taulan jarriz.

Bigarrena.- Jendaurreko informazio aldian ez zen alegaziorik aurkeztu, beraz Udalak, 2008ko otsailaren 29ko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion espedienteari, eta Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidali.

Hirugarrena.- Lurraldeari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aztertu zuen gaia uztailaren 17ko 5/2008 bilkuran.

## *Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**7328**

**ORDEN FORAL 653/2008, de 30 de octubre, de Aprobación definitiva del expediente de 9ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valdegovía.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 27 de diciembre de 2007 el Ayuntamiento de Valdegovía acordó aprobar inicialmente la 9ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias del municipio de Valdegovía, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 8, de 18 de enero de 2008, en el periódico El Correo, de 17 de enero de 2008, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 29 de febrero de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 5/2008, de fecha 17 de julio.

Laugarrena.- Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2008ko irailaren 9a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- Abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuak agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak urriaren 23ko 6/2008 bilkuran aztertu zuen espediente hau.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Gaubeako Udalak sustatutako aldaketak hainbat helburu ditu, hara:

A.- Gaubeako Udalaren jabetzapeko 8 zenbakiko poligonoko 135, 136 eta 138 lurzatien antolamendu xehekatua aldatzea, "kanpoaldeko areak urbanizatzeko proiektua" gauzatu ahal izateko, udaletxe ingurua hobetu eta egokitu nahian, aparkalekutarako erabiltzeaz gain berdegune gisa erabiltzeko.

Obra hori egiteko SUR-2 sektorearen UE-VN-06 egikaritze unitatea berriz ere mugatu da. Azalera lehen 8.208 m$^2$ zen eta orain 6.290 m$^2$-ra txikitu da, baita bizitegitarako lekua ere, 10 etxebizitza egin beharrean 8 egingo direlako, baina eraikuntza dentsitatea aldatu gabe (12 etxeb./ha). Horretarako, egikaritze unitate honetatik bazter utzi den lurzorua zuzeneko jarduketako lurzoruan sartuko da, eta Gune Libreen eta Plazen Toki Sistema (1800 m$^2$ inguruko berdegunea) bezala kalifikatuko dute berriz; gainerakoak, ordea, Komunikazioen Toki Sistema bezala.

B.- Egun indarrean diren arau subsidiarioak oinarritzat hartuta egindako hutsak zuzentzea, Administrazio Batzarraren jabetzapeko 8 zenbakiko poligonoko 34 eta 46 lurzatien jabetza eta esleitutako kategoria dela eta.

SUR-3 sektorearen barruko eremua da, eta finkatu gabeko hiri lurzorua; hortaz, 8.716 m$^2$-ko beste egikaritze unitate bat (UE-VN-09) mugatzen da, eta 9 etxebizitza sartzeko antolatuko da, SUR-3 zonako dentsitatea aplikatutuko delako, hain zuzen ere, 10 etxeb./ha.

C.- Udaletxearen aurrealdean dagoen kaleko lerrokadurak doituko dira, egungo errealitatera egokitzeko; baita Villanañe errepidea ere, SAUR-4 sektoreko urbanizazioarekin bat egiten duen gunean, bolatokiaren aldamenean dagoen ibilgailuentzako bidea kenduta.

D.- Aldatu egiten da 14 zenbakiko poligonoko SUR-2 sektoreko 102 lurzatiaren kalifikazio xehekatua, egun dagoen ekipamendu eta merkataritza gunea espazio libreez eta aparkalekuz hornitzeko. Egun bizitegitarako kalifikatutako 1.200 m$^2$ inguru espazio libreen eta plazen toki sistema kalifikatuko dira. Gainerakoa, berriz, komunikaziotarako toki sistema.

E.- Aipatutako lurzatian (14 poligonoko 102) dagoen E2 ekipamendutarako eraikinean solairu gehiago egin nahi da, eta BS izan beharrean PB+1 izango da; horri esker, lurzoruaren bi mailetatik sartu ahal izango da eraikinera. Bestalde, lurzoruaren gehienezko eraikigarritasuna handitu nahi da 0,20 n$^2$/m$^2$-tik 0,70 m$^2$/m$^2$-ra, kultura eta hezkuntza eta aisialdi eta gizarte erabilerarako eta zerbitzu orokorretarako, baimendutako gainerako erabilerez ekipatze aldera.

F.- Arau subsidiarioen 179. artikuluak jasotako Historia eta arkitektura Ondarearen zerrenda dela eta, zera lortu nahi da aldaketarekin:

1. Villanueva de Valdegovía-ko urtegia eta Lahozko Santiago eliza EAEko eraikin/eraikin multzo gisa proposatzea ondasun higiezinen katalogoaren barruan, eta udal esparruan kultur balioa duten ondasun higiezinen katalogotik bazter uztea Nograroko 14 poligonoko 27 eta 28 lurzatietan dauden eraikinak.

2. Aplikazio arauak zehaztea, udal esparrurako eraikin ala kultur ondasun proposatzen den. Kultur ondasun izatekotan, arau subsidiarioen 140. artikuluak araut.tutako zaharberritze obrak egin ahal izango dira.

Cuarto.- El Ayuntamiento remitió el expediente a la Diputación Foral de Alava, para su aprobación definitiva si procediese, donde tuvo entrada el día 9 de septiembre de 2008.

Quinto.- En cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 6/2008, de 23 de octubre.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- La Modificación, promovida por el Ayuntamiento de Valdegovía, tiene un objetivo múltiple, y se puede expresar del siguiente modo:

A.- Modificación de la ordenación pormenorizada referida a las parcelas nº 135, 136 y 138 del polígono nº 8, propiedad las tres del Ayuntamiento de Valdegovía, para posibilitar la ejecución del "Proyecto de Urbanización de Áreas exteriores", en un afán de mejora y acondicionamiento de los alrededores de la Casa Consistorial, para usos de aparcamiento y zona verde.

Para realizar ésto se redelimita la unidad de ejecución UE-VN-06 del SUR-2, reduciéndose la superficie de 8.208 m$^2$ a 6.290 m$^2$ y su capacidad residencial de 10 a 8 viviendas, sin modificar la densidad edificatoria (12 viv/ha), incorporándose el suelo excluido de ésta al suelo de actuación directa y recalificando como Sistema Local de Espacios Libres y Plazas (zona verde de unos 1.800 m$^2$) y sistema local de comunicaciones el resto.

B.- Subsanación de ciertas erratas cometidas por el texto de Normas Subsidiarias actualmente vigentes, en cuanto a la titularidad y categoría de suelo asignado a las parcelas 34 y 46 del polígono 8, propiedad de la Junta Administrativa.

Se trata de un ámbito (dentro del SUR-3) de suelo urbano no consolidado, por lo que se delimita una nueva unidad de ejecución, la UE-VN-09 de 8.716 m$^2$, para la que se ordena una capacidad de 9 viviendas, al aplicar la densidad de la zona SUR-3, establecida en 10 viv/ha.

C.- Se reajustan las alineaciones de la calle situada frente a la Casa Consistorial, adaptándose a la realidad actual y del camino de Villanañe, en su entronque con la urbanización resultante del SAUR-4, eliminando el vial rodado junto a la bolera.

D.- Se modifica la calificación pormenorizada de la parcela del SUR-2, número 102 del polígono 14 para dotar de espacios libres y aparcamientos al equipamiento y zona comercial existente. Se cambian unos 1.200 m$^2$ de actual calificación residencial por la de sistema local de espacios libres y plazas y el resto a sistema local de comunicaciones.

E.- Se pretende permitir el aumento de plantas del edificio de equipamiento E2 existente en la parcela citada (102 del polígono 14), pasando de PB a PB+1, con ello se posibilita que tal edificación pueda tener acceso desde los dos niveles del terreno. Por otra parte se pretende aumentar la edificabilidad máxima para uso cultural y docente, recreativo y social y de servicios generales del territorio desde los actuales 0,20 n$^2$/m$^2$ a 0,70 m$^2$/m$^2$, para equipararlo con el resto de usos permitidos.

F.- Respecto al listado de Patrimonio Histórico-Arquitectónico, recogido en el artículo 179 de las Normas Subsidiarias, la modificación pretende:

1. Incluir la presa de Villanueva de Valdegovía y la Iglesia de Santiago Apóstol de Lahoz dentro del catálogo de bienes inmuebles propuestos como Monumentos/Conjuntos monumentales de la CAPV y excluir del de bienes inmuebles con valor cultural en el ámbito municipal las edificaciones situadas en la parcela 27 y 28 del polígono 14 de Nograro.

2. Concretar las normas de aplicación según se trate de un bien propuesto como Monumento o Bien Cultural en el ámbito municipal, permitiendo en éste último caso las obras de reforma reguladas en el artículo 140 de las Normas Subsidiarias.

Bigarrena.- Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak egindako txostena oinarritzat hartuta, ondoko hauek bete beharko dira:

1. Espedientean zera jaso beharko da, udaletxe inguruan egin beharreko jarduna (8 poligonoko 135, 136 eta 138 lurzatiak) bateragarri izan behar dela Arabako Foru Aldundiak onartutako proiektuarekin; hau da, "A-2622 errepidea, Villanueva de Valdegovíatik igarotzen den zatian, 41,00 km-tik 42,00 km-raino egokitu eta hobetzeko eraikitze proiektua" gauzatzeko egin beharreko obrekin.

Jardun hori egin orduko, errepideen zaintza baimena eskatu beharko da, eta jadanik idatzita dagoen urbanizazio proiektuari erantsi, aurreko lerroaldean esandakoa bermatzeko.

2. Ezin izango da sartu inola ere 14 poligonoko 102 lurzatian egin nahi den ibilgailuentzako aparkalekura A-4331- errepidetik.

Horrez gain, ezin izango da eraikuntza lerroa A-4331 errepidera hurbildu, beste lurzatian dagoen gehienezko eraikuntza dentsitatea handitu arren, eta agirian adierazten diren ekipamendu erabileratarako erabilera gehiago jarri arren.

Baimena eskatu beharko da, aurreko horiek bermatu ahal izateko eta A-4331 errepidearen aldamenean egingo diren jardueren diseinua koordinatu ahal izateko.

Hirugarrena.- Espedienteak egungo egoeraren planoa jaso beharko du, aldaketaren ondorioz sortutako zati bakoitza non kokatuko den grafikoki adierazita.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Gaubeako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 9. aldaketa puntualari buruzko espedientea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte, egoki iritzitako beste edozein neurri hartzeaz gain:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aurrean aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean, hura jakinarazi edo argitaratu ondorengo hilabetearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 30a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

Segundo.- En base al informe emitido por la Dirección de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Álava:

1. Deberá incluirse en el expediente la obligatoriedad de que la actuación a llevar a cabo en el entorno del Ayuntamiento (parcelas números 135, 136 y 138 del polígono nº 8) sea compatible con las obras previstas en el "Proyecto de Construcción de acondicionamiento y mejora de la carretera A-2622, entre el P.K.41,000 y el P.K. 42,200, a su paso por Villanueva de Valdegovía", aprobado por esta Diputación Foral de Alava.

Con el objeto de garantizar lo anterior, deberá procederse, previamente a la ejecución de dicha actuación, a la solicitud del correspondiente permiso de policía de carreteras, adjuntando el proyecto de urbanización que ya se encuentra redactado.

2. El acceso rodado al aparcamiento previsto en la parcela número 102 del polígono 14, no podrá disponerse en ningún caso desde la carretera A-4331-

Asimismo, el aumento del volumen edificatorio máximo permitido en el edificio existente en la anterior parcela, así como el aumento de la edificabilidad máxima para los usos de equipamiento que se señalan en el documento, no podrán en ningún caso suponer un acercamiento de la línea de edificación a la carretera A-4331.

Para garantizar lo anterior, así como para coordinar el diseño de las distintas actuaciones que se vayan a llevar a cabo junto a la carretera A-4331, deberá solicitarse el correspondiente permiso de policía de carreteras con antelación a las mismas.

Tercero.- El expediente deberá presentar los planos de estado actual, indicando gráficamente la ubicación de cada una de las partes de la modificación.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 9ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valdegovía.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 30 de octubre de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**7323**

**411/08 FORU AGINDUA, urriaren 29koa. Honen bidez, Arabako Euskal Pilota Federazioaren estatutuak onartzen dira.**

Dekretu honek ezarritakoa bete beharko dute kirol federazioen estatutuek, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak xedatzen duenez.

Dekretu horren 65.2 artikuluak xedatzen du Arabako kirol federazioen estatutuak Arabako Foru Aldundiko dagokion organoan aurkeztuko direla onartuak izan daitezen.

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak du eskumena kirol arloan.

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**7323**

**ORDEN FORAL 411/08 de 29 de octubre, que aprueba los Estatutos de la Federación Alavesa de Pelota Vasca.**

El Decreto 16/2006,de 31 de enero,de las Federaciones Deportivas del Pais Vasco señala, en su disposición transitoria primera, que las federaciones deportivas adaptarán sus actuales Estatutos a lo dispuesto en el citado Decreto.

El articulo 65.2 del citado Decreto señala que los Estatutos de las federaciones territoriales deportivas alavesas se presentaran para su aprobación en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.